

# IKASTOLAN MAMUAK DAUDE

JON ANDER URKIAGA

MARRAZKIAK: IKER URIBE



igelioigela

**IKASTOLAN  
MAMUAK DAUDE**

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako  
Kultura eta Hizkuntza Politika  
Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2026ko maiatzean*

Azala eta liburuaren diseinua:

Asier Beltza

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Iker Uribe

© Jon Ander Urkiaga

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-107-7

L. G.: D 333-2026

Erein argitaletxea  
Tolosa Etorbidea 107  
20018 Donostia  
T 943 218 300  
e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)  
[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Ulzama  
Altzutzate kalea, 51  
31620 Huarte, Nafarroa  
T 948 332 808  
[contacto@ulzama.com](mailto:contacto@ulzama.com)  
[www.ulzama.com](http://www.ulzama.com)

Jon Ander Urkiaga

# IKASTOLAN MAMUAK DAUDE

Marrazkiak: Iker Uribe



igelioigela 48

# 1

—Amatxo, ez dut ikastolara joan nahi...

—Badakit, Eñaut, eta neuk ere ez dut lanera joateko gogorik... Baina ezingo gara egun osoan etxean geratu, ezta? Bertan dugu asteburua, eta orduan izango dugu nahi duguna egiteko aukera!

—Sekula ez didazu jaramonik egiten, ama... Etxean geratu nahi dut zurekin... Mesedez...

Eñautek ez zuen ikastolara joan nahi izaten. Ezta litxarreriak kiloka oparituko balituzte ere. Goiza joan eta goiza etorri, aitzakia aitzakiaren atzetik asmatzen zituen etxean gelditu ahal izateko: tripako mina zela, gaua eztulka igaro zuela, anaia txikiak ez zuela ikastolara joan beharrik eta berak bai ordea... Baina benetako arrazoia guztiz bestelakoa zen:

—...ikastolan mamuak daude.

Ezpainak dardarka eta negar anpuluak masailetan behera ahoskatu zituen azken hiru hitzak Eñautek, amak ez entzuteko moduan. Izan ere, ondotxo zekien amak ez ziola horrelakorik sinetsiko, eta egiak baino arrakasta handiagoa izango zuela edozein gezur kontatzeak.

—Zuk sinesten didazu, ezta, Martintxo? Eskerrak oraindik ez duzun ikastolara joan behar... Ondo portatzen bazara, amak ez zaitu oraindik ikastolara eramango, eta amonarenean utziko zaitu, nahi adina jolas zaitezten... Baina gutxien espero duzunean, zuri ere iritsiko zaizu eguna, Martintxo, eta orduan zeure begiz ikusiko duzu amari kontatzen diodan guztia, orduantxe ezagutuko dituzu ikastolako mamu guztiak...

—Baina Eñaut, laztana, zer mamuk egon nahiko luke zure moduko ume bihurritz beteriko ikastola batean? Beldurraren beldurrez eurek egingo lukete alde inork baino lehenago!

—Aitita? Zu al zara? Baina... nondik irten zara? Oi, oi, oi... Burua galtzen ari naizela uste dut...

—Nor izango naiz ba? Aitita Braulio, jakina! Behin esan nizun ni beti egongo naizela zurekin, eta

iruditzen zait azkenaldi honetan baduzula norbaiten beharra, ezta?

—Eta amak ikusten bazaitu?

—Zaude lasai, txiki, ez arduratu... Eta orain, ea, esadazu zer den mamuen kontu hori...

—Benetan diotsut, aitita. Ikastolan mamuak daude... Sinesten didazu, ezta?

—Beno, ados: demagun arrazoi duzula eta ikastolan mamuak daudela... eta zein da arazoa? Neu ere ez al naiz ba mamu bat?

—A zelako galdera, aitita! Baina zu mamu ona zara!

—Nahi duzuna esango duzu, baina nik sekula ez dut mamu txarrik ezagutu...

Eñauten amak komunetik entzun zituen Eñauten berbak, zer zioen ulertu ez arren. Ilea sikatzeari utzi, ile-lehorgailua amatatu, eta burua atera zuen bainugelako atetik.

—Zarata honekin ez dizut ezertxo ere entzun, maitea. Zerbait esan al didazu?

—Ez, amatxo, ezertxo ere ez...

Indargabe ziruditen Eñauten hitzek. Lagunekin elkartzeko poz-pozik zegoen zortzi urteko ume

batenak baino, ahoskatu berri zituen berbek zoriontsu sentitzen ez zen mutiko batenak ziruditen.

Amak ere bazekien semeari kosta egiten zitzaioala goizero-goizero esnatu, gosaldu, jantzi, eta ikastolara abiatzea. Baina horrela behar zuen izan. Ez zegoen beste aukerarik. Eguneroko errutinari heldu zion orduan. Zortzi eta erdiak jotzearekin batera, sofara gerturatzen zen ama, bertan egoten baitzen Eñaut, uzkur-uzkur eginda, mantapean, momentu horretan ikusezin bihurtu nahi izango balu bezala. Orduan, altzoan hartzen zuen horrenbeste maite zuen semea, eta etxetik irten aurreko bost minutuak besarkada estuan bildurik igarotzen zuten. Emekiro laztantzen zion aurpegia malkoak xukatzen zizkion bitartean, eta bost minutuan eskaini daitekeen maitasun guztia eskaintzen zion Eñauti. Egunari aurre egiteko behar besteko indarrez betetzen zion bateria semeari.

## 2

Amak eramaten zuen ikastolara goizero-goizero. Eskutik helduta sartzen ziren sarrera nagusiko atetik, eta gaztelu ilun eta beldurgarri batera sartuko balitz bezala, atea gurutzatu ahala, Eñauten eskuak are indar handiagoz estutzen zuen amarena.

Eñautek bazekien hamar metro geratzen zitzaizkiola amaren babesean. Behin eraikin nagusiko ate zuri metalikoaren parera iritsiz gero, amaigabeak egingo zitzaizkion ordu pila izango zituen aurretik. Kukulumuxu jartzen zen orduan ama, begiak begiekin, eta esku biak oratuta semea lasaitzen saiatzen zen.

—Badakizu asko maite zaitudana, ezta? Arratsaldean zeure zain egongo naiz betiko antzera, eta ikastolatik irtetea, nahi duzuna egingo dugu! Zer iruditzen?



—Baina nik ez dut hemen gelditu nahi, ama... Zurekin joan nahi dut... Eraman nazazu lanera zurekin, ohartu ere ez zara egingo zure ondoan nagoela... Atximurkak sentitzen ditut sabelean, min dut tripan...

Amari mingarri egiten zitzaion semea goizero-goizero horrela utzi beharra, eta haurra ikastolara bezain burumakur abiatzen zen egunero lantokira. Munduan gehien maite zuena negar zotinka uzteak ikaragarritzko ekaitza sortzen zion barrenean, trumoi, tximista, euri eta guzti.

Egun hartan ere, Eñauti erreka hari finak hasi zitzaizkion irteten begietatik berriro. Amaren eskuak askatu, eta ito beharrean besarkatu zuen: masaila masailaren kontra, infinitura baino urrunago luzatu zuen begirada Eñautek.

—Maite-maite zaitut, bihotza... —esan zion amak.

—Neuk ere b... Aitita? Baina zer egiten duzu zuk hemen?